

# KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIAK

EZTABAIDA TEORIKOA IKUSPEGI EUROPARRETIK

2013ko ABENDUA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

# KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIAK

EZTABAIDA TEORIKOA IKUSPEGI EUROPARRETIK

2013KO ABENDUA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:  
1.a, 2014ko otsaila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:  
[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea:  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:  
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Sarrera	5
<b>1. Aurrekariak: Kultura- eta sormen-industria kontzeptuaren sorrera</b>	<b>6</b>
<b>2. Europaren posizionamendua</b>	<b>9</b>
2.1. Esparru teoriko berria	9
2.2. Europako garapen-estrategia	10
2.3. Kultura- eta sormen-industrietzako (KSI) laguntza-esparru berria	12
2.4. KSlak Europan: aldaketarako borondatea	13
<b>3. EAEk duen posizionamendua KSlekiko</b>	<b>15</b>
3.1. Eskualdeko politikaren zeregina	15
3.2. Egungo egoeraren azterketa	16
3.2.1. Laguntzeko tresnak eta neurriak	16
3.2.2. KSlak lagundu eta sustatzeko egiturak	21
3.2.3. Ondorioak: KSlei laguntzeko politika globalak	21
3.3. Gomendioak	22
3.3.1. Oinarriak	23
3.3.2. KSlen laguntza-estrategiarako oharrak	24
Bibliografia	26

Egun, Kultura- eta sormen-industriak oso garrantzitsuak dira, balio erantsiaren, sormenaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egin duten lurraldeetako hazkunde ekonomikorako politiken erdigunean baitaude. Ekonomia-testuinguru globalizatu batean, gehien hazten ari diren ekonomiak ildo horretako estrategiak garatzen dabilta.

Txosten honek Kultura- eta sormen-industrien, Europar Batasunak bultzatutako sustapen-politiken eta sektore horietan eragina duten EAEko politiken esparru kontzeptualaren ikuspegi sintetikoa eskaintzen du. Helburua EAEn garatu beharreko politikei buruz eta Europako jarduera-esparruan zabaltzen diren aukerei buruz sakonago eztabaidatzeko abiapuntua jartzea da.

Beraz, helburua ez da etorkizunerako plangintza politikoaren azalpen sakona aurkeztea, baizik eta EAEko garapen ekonomikoari lotutako sormenaren sustapen-politika berrien programazioan interesgarria izan daitekeen eztabaida teoriko eta estrategikoaren oinarriak finkatzea. Hori guztia Europar Batasuna apustu estrategikoa egiten ari den esparru baten barnean, zeinetan ezinbestekoa baita iragarritako politikak egiazko proiektu espezifikoean zertzea.

## Aurrekariak: Kultura- eta sormen-industria kontzeptuaren sorrera

Globalizazioak, ekoizpen-ereduen eraldatzeak eta inguru teknologiko eta digital berriak testuinguru ekonomiko eta sozial berriak erakartzen dituzte. Industria-osteko gizartea, informazioaren gizartea, nahiz beste termino berriago batzuk erabili diren ere –esperientziaren ekonomia, adibidez–, argi dago garai aldaketa bat gertatu dela. Egungo unearren ezaugarri nagusia aldaketa azkarrak eta etengabeak dira; ekoizpen-berrantolaketan ez ezik, biztanleen bizimoduan eta ohituretan ere eragina duten aldaketak.

Esparru berri horretan, tradizioz hazkunde-eragileak izan direnak, esaterako industria-ekoizpena, pixkanaka beren lekua galtzen ari dira eta beste ordezkari batzuk dituzte, adibidez, sormen-komunitateak; haien lehengai sortzeko eta berritzeko gaitasuna da. Jakintza-gizarteari edo informazioaren gizarteari buruzko adierazpen guztiak gizarte-harremanen eta harreman ekonomikoen antolaketan dimentsio sinbolikoak duen gero eta garrantzia eta nagusitasun handiagoaren inguruan antolatzen dira<sup>1</sup>.

Harreman ekonomiko eta sozialen gero eta konplexutasun handiagoak zaildu egiten du gai horien inguruko definizioetan ados jartzea, nahiz eta gai horiek ideologia orotako diskurtso politikoetan eta ideologikoetan aurkitu. Hala, «sormena» edo «berrikuntza» kontzeptuek definizio bat baino gehiago izaten jarraitzen dute, eta garrantzitsuagoa dena, estrategia politikoetan duten benetako balioa, Europan gutxienez, oraindik ere esparru teorikoari dagokio, praktikoari baino gehiago.

Beraz, Kultura- eta sormen-industrien (aurrerantzean KSI) kontzeptuaren definizioari buruzko eztabaidak bizirik dirau, oraindik ere. Dena den, txosten honen helburua ez da eztabaida teorikoa edo ideologikoa sustatzea, baizik eta ideia zabal samar bat aurkeztea, hala Europak kultura- eta sormen-sektoreei buruz duen posizionamendua eta garapen-estrategietan duten zeregina aztertu ahal izateko.

Oro har, KSlen definizioa, bertan sektore batzuk sartuta edo kanpoan utzita, haiei politika batzuen edo besteen bitartez heltzeko borondatearen mende dago batik batik, hala bilatzen dituzten helburuei erantzun diezaieten. Sarritan, kultura eta industriaren arteko mugetan dauden sektoreak dira, eta, beraz, ez daude erakunde edo sail bakarraren mende eta hainbat politikaren eragina izan dezakete; adibidez, kultura- eta ekonomia-politiken. Horregatik, KSlek garapen-estrategia globaletan eduki ditzaketen helburu eta eraginei

<sup>1</sup> *La cultura como factor de innovación económica y social* (Kultura, ekonomia eta gizartea berritzeko eragile gisa). Valentiako Unibertsitateko Kulturaren eta Turismoaren Ekonomiaren Ikerketa Unitateak egindako txostena Europako Sostenuito proiektuaren esparruan.

buruzko ikuspegi zabalagoa behar da. Jarraian ikusiko dugun bezala, horixe proposatzen du Europar Batasunak (EB) bere estrategia berrian.

Beraz, KSlak, maila kontzeptualean, dinamikoak dira, eta etengabeko eraikuntzan daude, eta sektoreen aorteko muga lausoak dituzte ezaugarri.

### KSlen kontzeptua Europako ikuspegitik

Kultura-industrien ohiko definizioetako bat 2005eko UNESCOren batzarrean onartutakoa da. Honako jarduera hauekin identifikatzen ditu: «Garatzen diren unean ezaugarri, erabilera edo xede espezifiko bat duten ondasunak edo zerbitzuak ekoizten edo banatzen dituzten industriak, ezaugarri, erabilera edo xede horrek kultur adierazpenak biltzen dituenen, haien merkataritza-balioa edozein dela ere. Artearen sektore tradizionalaz gain (arte eszenikoak eta ikusizko arteak, edo kultur ondarea, sektore publikoa barne), zinema, DVDaren eta bideoaren sektorea, telebista eta irratia, bideo-jokoak, hedabide berriak, musika, liburuak eta prentsa biltzen dituzte».

UNESCOren definizioan ez dirasartzen Sormen-industriak, esan den bezala, hainbat definizio baitituzte. KSlak osatzen dituzten sektoreen definizioa eta zerrenda ixten saiatu gabe, pixka bat gehiago zehazteko modua, bereziki sektore horiek ekonomikoki dimentsionatzeko beharri erantzuteko, erreferentzia gisa Europa-mailan KSlen azterketarako metodologiak osatzen dituzten sektoreak hartzea da. Horrekin lotuta, *European Statistical System Network on Culture 2012*ren azken txostenean aztertu diren arlo eta sektore kulturalak honako hauek dira:

- Ondarea
- Artxiboak
- Liburutegiak
- Liburuak eta prentsa
- Ikusizko arteak
- Arte eszenikoak
- Ikus-entzunezkoak eta multimedia
- Arkitektura
- Publizitatea
- Artisautza

Estatistika kulturala bada ere, publizitatea eta arkitektura bezalako sektoreak dagoeneko kultur sektore tradizionalen zati dira.

Bestalde, azpimarragarria da *European Cluster Observatory* erakundeak gauzatutako lan estatistikoa; izan ere, erakunde horrek egiten duen KSlen definizioa askoz ere zabalagoa

da, eta neurtzeko NACE 2.0<sup>2</sup> kodeak erabiltzen ditu, besteak beste, bideojokoen edizioa, musika-tresnen fabrikazioa, berrien agentziak, interpretazio- eta itzulpen jarduerak, eta abar barnean hartuta.

Europa-mailan metodologia kuantitatiboek eskaintzen duten sektore-orientabideaz gain, definizio kontzeptual finkatuagoak ere kontuan hartu behar dira. Ildo horretan, 2010ean Europar Batasunak onetsitako *Kultura- eta sormen- industriren liburu berdean*<sup>3</sup> horrela definitzen da: «Kultura material gisa erabiltzen dutenak eta dimentsio kulturala dutenak, beren ekoizpena batez ere funtzionala izan arren. Horien artean, arkitektura eta diseinua sartzan dira, sormenezko elementuak txertatzen baitituzte prozesu zabalagoetan, baita diseinuaren, modaren edo publizitateren tankerako azpisektoreak ere».

Beraz, KSlen definizioa inklusiboagoa edo baztertzaileagoa izan daiteke, ez dago adostasun garbirik, eta litekeena da inoiz adostasunik ez izatea, aurreikuspenen arabera, osatzen duten sektoreak eta azpisektoreak zabalduz joango baitira, errealitate ekonomiko, sozial, kultural eta teknologikoa eraldatzen doan heinean; izan ere, kulturaren sektoreak eraldaketa-prozesu hori izan du dagoeneko, XX. mendearen erdialdean kultur politikak instituzionalizatu zirenetik.

### KSlen eragina garapen globalean

KS-lak aztertzen dituzten egile batzuek –bereziki, ezagutzaren ekonomiaren zati gisa aztertzen dituztenek– sektoreko ikuspegitik urruntzen dira, eta gizartearen garapen eta hazkunde ekonomikoari ematen diote garrantzia.

Jakintzaren ekonomian eta sormenaren ekonomian balioa eta aberastasuna kapital ukiezinean daude (ezagutza, *know-how*, jabetza intelektuala, harreman-kapitala, posizionamendua, talentua, eta abar). Horiek horrela, KS-lei laguntzeko estrategiak sektore-garapen inklusiboago edo baztertzaileago batetik harago joan behar dira; helburua, ekoizpen-sistema osoan kultur eta sormen konnotazioak sustatzea da.

Txosten honetan adierazten den bezala, horixe da, hain zuzen ere, Europako garapen-estrategia berriak jarraitu nahi duen ildo.

<sup>2</sup> Europar Batasuneko Jarduera Ekonomikoen Nomenklatura Estatistikoa (NACE).

<sup>3</sup> Txosten honen 2. kapituluari *Kultura- eta sormen- industriren liburu berdea* deskribatu dugu.



## Europaren posizionamendua

### 2.1. Esparru teoriko berria

Lisboako estrategia, Lisboako Agenda izenez ere ezaguna, Europar Batasunak (EB) asmatutako garapen-plan bat izan zen, eta 2000. urtean onetsi zuten. Planak xede argi bat zuen: «2010a baino lehen Europar Batasuneko ekonomia munduko jakintzaren ekonomia lehiakorren eta dinamikoen bilakatzea, hazkunde ekonomiko iraunkorra ekartzeko gai izango zena, enpleguaren hobekuntza kuantitatibo eta kualitatiboarekin eta gizarte-kohesio handiagoarekin batera».

Bistan denez, 2008an hasi zen munduko krisialdi ekonomikoa dela-eta, EBk ez zuen 2010. urtean bere helburua lortu; ez hori bakarrik, Europa hegoaldeko herrialdeetan oraindik eragina duen atzeraldi ekonomikoak, Batasunaren egonkortasunaren beraren aurka egiten duten erronka eta oztopo berriak ekarri ditu.

Beraz, egungo testuinguruan, EB bere politikak berriz bideratzen ari da, lehiakortasuna eta munduan zuen posizioa berreskuratzen saiatzeko. Batasunak 2014tik aurrera abian jarriko dituen plan eta programa berrietan sumatu daitezkeen aldaketa guztietan sakontzen saiatu gabe, sektoreei dagokienez, ildo malguagoa dela eta finantzaketa eta nazioartekotzeko mekanismoen alde egiten duela ondoriozta daiteke.

Etapari berri horretan KSlek garrantzi berria hartzen dute Europako estrategia globalaren barnean, bereziki honako arazoari hauengatik:

- beren dinamismoagatik eta enplegua sortzeko duten gaitasunagatik,
- Europako aniztasun kulturala sustatu eta lurralde-kohesioa bultzatzen baitute, eta
- sormenak eragin positibo zuzen eta zeharkakoak baititu berrikuntzan, eta beraz, baita sektore ekonomikoen multzoan ere.

**KEA. European Affairs**, aholkularitzak 2009an Europako Batzordearen aginduz gauzaturako *The Impact of Culture on Creativity* ikerketarekin «*culture-based creativity*» kontzeptuaren garrantzi estrategikoaren ideia garatu zen, kultura-sormenak ekonomia osoan berrikuntza, eta beraz, lehiakortasuna bultzatzen duela dioen ideia oinarri hartuta.

Dokumentu hori KSlei buruzko eta KSlek herrialde kideen garapenean duen garrantziari buruzko ikuspegi europar berrirantz emandako lehenengo pausu garrantzitsua izan zen.

2010. urtean, Batasunaren ildo berri hori *Kultura- eta sormen-industrien liburu berdea* liburuan agertu zen. Dokumentu horren behin betiko izenburuak, *Europako kultura- eta sormen-industrien indar guztia askatuz*, argi eta garbi erakusten du EBk, bere politiken bidez, KSlak bultzatu eta sustatu nahi dituela hurrengo urteetan.

*Europak eraldaketa-inguru honetan lehiakor izaten jarraitu nahi badu, sormena eta berrikuntza loratzeko baldintza egokiak ezarri behar ditu enpresa-kultura berri baten bitartez.*<sup>4</sup>

2010eko **Lehiakortasunari buruzko Europako Txostenaren** arabera, sormen-industria batzuk berrikuntza-indar gehien daukaten EBko sektoreen zati dira. Txosten horren arabera, sormen-industriek Europar Batasuneko enpleguaren %3<sup>5</sup> biltzen dute, eta sektore ekonomiko dinamikoenen parte dira. Hala ere, KSlek azken urteotan gertatu diren aldaketa azkarrek eragindako erronkekin egin dute topo aurrez aurre (globalizazioa, inguru digitala eta krisialdi ekonomikoa). Sektore horietako enpresek, bereziki ETEek –KSlen gehiengoa halako enpresek osatzen dute–, egungo krisialdiak eragindako arazo larriei egin behar diete aurre. Arazo horiek, bereziki, finantzaketa lortzeko zailtasunean gauzatzen dira.

Hain zuzen ere, Europar Batasunak KSlen aldeko apustua egin nahi du, garapen-estrategiaren oinarritzko osagaitzat jotzen baititu, baina aurre egin beharreko zailtasunen jakitun ere bada eta, beraz, bere laguntzaren zati bat Europako garapen globalerako oinarritzotzat jotzen dituen sektoreen biziraupena eta hazkundera erraztera bideratuko du.

Europa KSlen gaitasun estrategikoari buruz konbentziturata egoteko arrazoia, hein batean, kanpora begiratu izanaren eta Europako sormen-ekonomia oraindik oso hasiberria dela jabetzearen emaitza da, batez ere munduko potentzia nagusiekin, (AEB eta Japonia, batik bat, baina baita ekonomia-lehian lehen postuetara iristen ari diren herrialdeak ere; esaterako Txina eta Korea) alderatuta. Hain zuzen ere, herrialde horiek aurrea hartu digute, eta sormena beren garapen-ereduaren eta posizionamendu globalaren erdigunean kokatu dute, eta horrek, begien bistan jartzen du KSlek duten garrantzia Europako ekonomia hazteko eta krisialditik behin betiko irteteko oinarritzko osagai gisa.

## 2.2. Europako garapen-estrategia

Egun, EBk hazkunde-estrategia berria garatzen dihardu hurrengo urteetarako: **Europa 2020** estrategia.

*Europa 2020 strategiak zentzuzko hazkunde lortu nahi du, inbertsio eragin-korragoak eginda hezkuntzan, ikerketan eta berrikuntza jasagarrian, karbono gutxi*

<sup>4</sup> Kultura- eta sormen-industrien liburu berdea.

<sup>5</sup> Aurreko atalean aipatu den bezala, sektore horiek kuantitatiboki aztertzekeo tresnak oso aldakorrak dira.

*erabiltzen duen ekonomia eta industria lehiakor eta integratzailea bultzatuta, eta, betiere, indarra enplegu-sorreran eta pobreziaren murrizketan jarrita. Estrategiak asmo handiko bost helburu ditu enplegu, ikerketa, hezkuntza, pobreziaren murrizketa, eta klima-aldaketa eta energiaren arloan.*

«Zentzuzko Hazkundera» kontzeptuak EBren errendimendua hobetzea esan nahi du, honako arlo hauetan: hezkuntzan (pertsonek ikasteko eta beren ezagutzak eguneratzeko estimulatzea), ikerketa eta berrikuntzan (hazkuntza eta enplegua sortu eta gizarte-erronkei aurre egiten lagunduko duten produktu eta zerbitzu berriak sortuz) eta gizarte digitalean (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz).

Hazkunde-eredu horretan, KSlek zeregin erabakigarria dute, lehenik, enplegu sortzaile gisa duten indarragatik<sup>6</sup>, beste sektore batzuetako eta negozio-ereduetako berrikuntzako osagai erabakigarri gisa<sup>7</sup>, eta egungo eta etorkizuneko aldaketa ekonomiko, sozial eta teknologikoetara egokitzea erraztuko duen kultura europar berriaren egituraketan eragile aktibo gisa.

Estrategia berri horren esparruan, EB programa eta organismo berriak sortzen eta abiarazten ari da, eta KSletara bakarrik lotuta egon ez arren, eragina dute haiengan:

*Programme for the Competitiveness of Enterprises and Small and Medium-sized Enterprises* (COSME). Programa hori 2014an jarriko da abian, 2020. urtera arte, eta 2.300 milioi euroko aurrekontua du. Bere helburu nagusiak ETEek finantzaketa lor dezaten erraztea eta enpresa txikiei beren jatorrizko herrialdeetatik kanpora eragiketarako egiten laguntzea dira.

KSlen zati handi bat ETEak direla kontuan hartuta, programa horrek haien garapena sustatuko du, horretarako Estatuko merkatuak zabaldu eta hainbat herrialdetako enpresen arteko lankidetzan oinarrituriko negozio-ereduak bultzatuta.

**Innovation Union.** «Berrikuntzaren aldeko batasuna» ekimenaren helburua ekonomia dinamikoa sortzea da, berrikuntzan oinarritutakoa, ideiek eta sormenak bultzatutakoa, munduko balio-kateetan txertatu, aukerak aprobetxatu, merkatu berriak bereganatu eta kalitate handiko lanpostuak sortzeko gai dena.

Izan ere, Horizontea 2020 programaren ikuspegi berriaren oinarritzko alderdia berrikuntzari ematen zaion garrantzia da. Eta horren isla dira, adibidez, honako neurri hauek: entsegu-jardueretara, prototipoen sorkuntzara, pilotuetara eta frogaketetara eta enpresek sustatutako I+G jardueretara funts gehiago

<sup>6</sup> *Promoting Cultural and Creative Sectors for Growth and Jobs in the EU.* Annexes to the Communication from the Commission to the Council, the European Parliament, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. Brusela: 26-09-2012.

<sup>7</sup> *The Impact of Culture on Creativity.* KEA European Affaire. Brusela: 2009.

bideratzea; produktu eta zerbitzu berritzaileen eskaintza antolatzea, horretarako arauak finkatuta eta kontratazio publikoa erabilia, eta berrikuntza sustatzea teknologikoak ez diren arloetan, hala nola, diseinuan, berrikuntzan eta zerbitzuen sormenean, negozio-eredu berrietan eta gizarte-berrikuntzan, berrikuntzari buruzko ikuspegi zabalagoaren adierazgarri gisa.

Beraz, berrikuntza kontzeptu zabala ezartzea da xedea, alderdi teknologiko hutsari eragiten diona gainditu eta arlo «ukiezinagoak» hartuko dituen barnean; adibidez, EBk berak esaten duenez, KSlak garrantzi handiko eragile gisa agertzen diren prozesuak eta negozio-ereduak.

### 2.3. KSlentzako laguntza-esparru berria

**Europa Sortzailea 2014-2020** programa kultura eta sormenezko sektoreak bultzatzeko EBko programa berria da. MEDIA eta Kultura 2007-2013 egungo programak hartzen ditu barnean, eta berritasun gisa, sektore-arteak kapitulu bat sartzen du, berme-funtsa barnean duena. Gainera, programak finantza-bermerako tresna berri bat du negoziatzaile txikiei kredituak emateko, eta finantza-erakundeek kultura sektoreko enpresak ulertzeko duten modua hobetuko du.

Europa Sortzaileak ez dakar laguntza-politiken erabateko aldaketa, ezta programaren xede diren sektoreena ere, baina bilakaera dakar KSlenganako begirada holistikoagorantz, baita enpresen eta profesionalen finantzaketa sustatzearen aldeko apustu argia ere, diru-laguntzen eredia gainditzen duten mekanismo eta tresnekin. Begirada industrialagoa da, kultur sektore tradizionaletara ere aplikatua.

Europa Sortzailea programaren aurrekontu osoa 1.462.724.000 eurokoa izango dela aurreikusten da (2014-2020), hori %9ko gehikuntza da ordezkaten dituen programekin (MEDIA, MEDIA Mundus eta Kultura Programarekin) alderatuta.

Europa sortzailea programaz gain, EBk KSlen garapena sustatzeko ekintzak eta proiektuak jarri ditu abian. Horien artean, la **European Creative Industries Alliance** (ECIA) nabarmendu behar da, Europako Batzordearen proposamena oinarri hartuta sortua. Ekimen hori EBko esparruaren barnean dauden sormeneko industrien hazkuntzan laguntzeko helburuarekin eratu zen, eta bere jarduera prestakuntza-politikak eta sormeneko industriak modu eraginkorragoan bultzatzeko politikak bateratzen dituzten bederatzi proiektuekin emango dio hasiera. Proiektu horiek politiken arduradunentzako zein profesionalentzako dira.

ECIAk elkarrizketa politikoa eta «berrikuntza-txartelei», finantzaketa-ekintzen hobekuntzari eta elkarrekin bikaintasunari eta lankidetzari buruzko zortzi ekintza jarri ditu abian, sormeneko industrien garapenean sakondu eta industriek ezagutza modu guztiak eta sormena hobeto erabil ditzaten.

## 2.4. KSlak Europan: aldaketarako borondatea

Europa Sortzailea 2014-2020 programa berria aztertuz gero, modu isolatuan ez da aurreko programekin etendurarik nabaritzen, lehendik daudenen (Media eta Kultura Programa) bateratzea baita. Hala ere, KSlekiko ikuspegi orokorrak badakar aldaketa orokor bat, kultur politiketan eragina izateaz gain, EBren estrategia globalean ezarri baita.

Beraz, bi azterketa-maila daude KSlek Europako esparruan duten kokapen berriari buruz: batetik, maila estrategikoa eta, bestetik, operatiboa.

### KSlak Europako estrategia gisa

Aurreko ataletan adierazi den bezala, EBk KSlak bultzatzearen eta sustatzearen alde apustu egin izanaren arrazoia garapenerako osagai gisa, baita enplegua eta lehia sortzeko dituzten aukeretan eta gaitasunetan sinestea da, sektore ekonomiko modura ez ezik, Batasuneko herrialdeetako enpresa-kultura hobetzeko funtsezko osagai gisa ere. «Sormena» edo «berrikuntza» moduko kontzeptuak zeharkako osagai gisa finkatu dira, beren eraginei buruzko askoz ere begirada holistikoagoa emanez.

Horrek benetako aldaketa estrategikoa dakar, eta begi bistakoa egiten da Europako diskurtso ofizialetan; dena den, hurrengo hilabeteetan ikusiko da planifikatutako ekintzak eta programak, eta errealitateak berak zer neurritaraino emango duten erdietsi nahi diren helburuak lortzeko aukera.

### KSlei laguntzea ikuspegi operatibotik

Antolamenduaren ikuspuntutik, Europa sortzailea programak ez dakar aldaketarik, Kulturaren menpe dago eta denak adierazten du Media eta Kultura 2007-2013 programak zuzenduta zeuden sektore kultural eta sortzaile berberentzako izango dela. Garrantzi ekonomiko handiagoa eta sormen-maila altua duten enpresak, berriz, hala nola moda, diseinua, arkitektura edo IKTak Enpresa eta Industriak diseinatutako programen laguntza nagusiak jasotzen jarraituko dute.

Baina ikuspuntu operatibotik begiratuta, programa berrietan nabari daitezkeen aldaketa esanguratsuak KSlen finantzaketa-ereduekin lotuta daude, sektore horien garapenerako eta biziraupenerako arazo nagusienetako bat aintzat hartuz.

Hain zuzen, kreditu pribatua lortzeko zailtasuna da egungo egoera ekonomikoaren arazo nagusietako bat, eta EBk rol aktiboa hartu nahi du bere gain egoera hobetzeko. Europar Batasunak finantzaketa tresna publiko-pribatuen aldeko apustua egin nahi du, eta banketxe pribatuetako profesional eta adituentzako pedagogia-lana gauzatu, KSlei buruz daukaten ezagutza hobetzeko, eta horrela, KSlekiko jarrera positiboagoa izateko bidea emateko.

Finantzaketa-estrategia berri hori, hala ere, ez da KSlekin bakarrik gertatzen, EBren politika globalaren zati ere bada. Adibidez, *Cohesion Policy 2014-2020* programa, eskualde-politikaren esparruaren barnean (Inforegio), Europako aurrekontuaren herena da, eta oraindik estatuekin negoziatzen ari badira ere, aldi honetarako finantzaketa-lehentasunak zehazteko, dagoeneko aurreko programaren aldiarekin (2007-2013) erkatuz gero, aldaketak egongo direla adierazi da. Programa berriak sektore-malgutasun eta finantzaketa-mekanismo elkartuen ezarpenaren aldeko apustua egiten du, inbertsioak mailegu, berme eta arrisku-kapitalaren beste mekanismo batzuen bidez lagunduz, diru-laguntzetan oinarritutako finantzaketa klasikoa baino osagarri iraunkorrago gisa.

Azken ohar bezala, garrantzitsua da EBk Europako politika kultural eta enpresa-politikei buruz duen maniobra-marjina kontuan hartzea. Bi arlo horietan, beste batzuetan bezala, osasunean, hezkuntzan edo turismoan adibidez, Batasunaren eskumenak laguntzazkoak baino ez dira, estatuaren ekintzak osatu edo bideratzea da beraien asmoa. Beraz, horretarako erabiliko diren aurrekontuak handiak badira ere, Europa sormenaren ikuspegitik eskualde lehiakor bihurtzeko politiken behin betiko inpaktua eraginkorra izango bada, herrialde kideek helburu horiek beren garapen-politiketan sartu beharko dituzte.

## KSlei buruz EAEk duen posizionamendua

### 3.1. Eskualdeko politikaren zeregina

Europar Batasunak 2012an argitaratutako *Policy Handbook on How to Strategically Use the EU Support Programmes, Including Structural Funds, to Foster the Potential of Culture for Local, Regional and National Development and the Spill-over Effects on the Wider Economy?* liburuan, herrialde kideek KSletan inbertitzeko arrazoi batzuk agertzen dira. Labur-labur, hauek dira ematen dituen arrazoiak:

- Hazkunde ekonomikoan eta enplegu sorreran laguntzen duelako.
- Tokiko eta eskualdeko garapenari laguntzen dielako.
- Berrikuntzari eta gizarte ongizateari laguntzen dielako.

Baina lortzeko modua oraindik ere zehaztu gabe dago, programaren aldi berrirako diskurtso europarrak oinarri hartzen duen sormen-ekonomiarentzako laguntza zehaztean gertatzen den bezala.

Horri dagokionez, Europako Batzordeak zentzuzko espezializaziorako eskualde berrikuntza-estrategiei buruzko gida (*Guide to Research and Innovation Strategies for Smart Specialisation*) argitaratu du, [Smart Specialisation Platform](#) –S3Platform–<sup>8</sup> plataformak egina. Gida horrek eskualde mailako I+G estrategia diseinatzeko jarraitu behar diren oinarriko sei pausu proposatzen ditu:

1. Eskualde-testuingurua eta berrikuntza-indarra aztertzea.
2. Gobernantza. Partaidetza eta bertako kide izatearen sentimendua ziurtatzea.
3. Eskualdearen etorkizuneko ikuspegi orokorra burutzea.
4. Lehentasunak identifikatzea.
5. Politika koherenteak, ibilbide-orriak eta ekintza-plana zehaztea.
6. Monitorizatzeko eta ebaluatzeko mekanismoak sartzea.

<sup>8</sup> Europako Batzordeak 2011n sortutako Plataforma. Bere helburua eskualde eta estatu kideei zentzuzko espezializaziorako ikerketa- eta berrikuntza-estrategien garapen eta ezarpenean aholkatzea da. Plataforman EBko eskualdeko administrazioek eta administrazio nazionalak parte hartu dezakete.

Hortaz, edozein estrategiak dituen oinarrizko pausuak dira. Hala ere, gida honekin, eta EBk egindako beste dokumentu batzuekin, lortu nahi dena berrikuntza-estrategia garapen orokorraren estrategian sartzea da. Errealitateak sektoreko begiradak alde batera utzi eta politika eta estrategia integralagoetarantz aurrera egitera behartzen du.

Baina ikuspegi honek, teoria-mailan adostutakoak, errealitatearekin, administrazio eta erakunde publikoen egitura organikoekin eta sailen arteko eta diziplinarteko proiektuak abiarazterakoan dauden zailtasunekin topo egiten du.

Hori ez da oztopo makala, baina era askotako aukerak aprobetxatu eta KSlek testuinguruan dauzkaten erronka berriak konpontzeko, industriak berak, enpresek eta Administrazio Publikoek indarrak batu eta eskualdeko estrategia orokor berriak zehaztu behar dituzte. Hori guztia, sektore osoaren pisua eta garrantzia kontuan hartuz, «inbertsioa/errentagarritasuna» oreka lortzeko eta gizarteak derrigorrean behar dituen alderdi ukiezinak identifikatzeko bideak irekiko dituzten konponbide eta proposamenekin<sup>9</sup>.

## 3.2. Egungo egoeraren azterketa

KSleentzako laguntza publikoaren esparrua osatzen duten tresna eta neurri garrantzitsuenen bilketa laburra gauzatu da. Argi eta garbi adierazi gabeko esparrua da, eta beraz, laguntza-politika zuzen eta zeharkakoak sartzen dira.

### 3.2.1. Laguntzeko tresnak eta neurriak

Neurriak mugatzeko helburuarekin irizpide batzuk ezarri dira:

**Izaera publikoa.** Euskal administrazio publikoek gauzatutako neurriak besterik ez dira jaso.

**Industriari lagundu.** Hautatutako tresnek industriari laguntzen diote (balio-katearen fase guztietan). Beraz logika ekonomikoan oinarritutako laguntza da laguntzen ari den ekoizpen-jardueraren irabaziak hobetu eta gehitzeko. Diru-laguntzak funts galdurako laguntza-izaera daukate eta ondasuna babestea gailentzen denez irizpide ekonomikoaren gaineratik, zerrendatik kanpo geratuko lirateke. Hala ere, garrantzi handien duten laguntza publiko tresnak direnez, bildu egin dira.

**Sektore anitzeko begirada.** KSlen ideia zabaletik abiatuz, hainbat neurri eta tresna bildu dira, zuzenean KSlei zuzenduta egon ez arren, haiengan eragin positiboak izan ditzaketenak.

<sup>9</sup> Las industrias culturales y creativas. Un sector clave de la nueva economía. 2012: Ideas Fundazioa.



Laguntzeko neurri eta tresnak herrialde-mailaren (erkidegokoak, lurralde historikokoak eta tokikoak) eta sustatzen dituzten erakundeen arabera antolatu dira, eta bost neurri mota zehaztu dira:

- **Finantzaketa (F):** Laguntza ekonomikoa eskaintzen duten laguntzak dira. Horien artean bereiz daitezke: funts galdurako programak (FFG), aurrerakin itzulgarrikoa (FAI) edo Kredituzkoak (FK).
- **Aholkularitza (A):** Ekimenaren hainbat arlotan (abiaraztean, finantzaketa lortzeko laguntza, negozio-ildo berrien garapenean, nazioartekotzean, etab.) laguntza emateko neurriak dira.
- **Prestakuntza (PR):** Ekintzaileak hainbat arlotan prestatzeko neurriak dira.
- **Hedapena (HE):** Enpresen jarduera sustatzeko laguntza-neurriak. Administrazioak, modu zuzenenean, enpresen jarduera sustatzen du hainbat tresnen bidez, hala nola, azoka eta biltzarren bidez.
- **Toki-hornikuntza (GH):** Enpresa-proiektuak garatzeko guneak erabiltzeko aukera emateko neurriak dira.

Administrazioa	Erakundea / Saila	Neurria / Tresna	Sektorea/Industria	Motak
<b>AUTONOMIA ERKIDEGOAN</b>				
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza	Sorkuntza Lantegiak Programa	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		Kultura Sorkuntzarako diru-laguntzak	Ikus-entzunezkoa	F (FFG)
		Ikus-entzunezkoa (gidoien sorkuntza, ekoizpena eta sustapena eta publizitatea)	Ikus-entzunezkoa	F (FFG)
		Argitalpen-produkzioarako diru-laguntzak	Argitalpena	F (FFG)
		Euskadiko Soinuak programa	Musika	A / HE
	ZINEUSKADI	Media Antena Euskal Herria programa	Ikus-entzunezkoa	F / A / PR
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza	PROINTER programa Kanpoaldeko sustapen- eta ezarpen-jardueretarako laguntzak	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		Nazioartekotze-bekak (barne-merkataritzako aholkulariak prestatzeko bekak)	Sektore anitzetarako	PR
		ELKARTZEN programa (sektoreko elkarteei kanpo-sustapeneko jarduerak burutzeko ematen zaizkien laguntzak)	Sektore anitzetarako	F (FFG)
	SPRI Taldea Enpresa Garapenerako Agentzia	Start Ups programa (enpresen sorkuntza, oinarri teknologikoa/berritzailea duten enpresetan arreta berezia jarriz)	Sektore anitzetarako	A
		Enpresetan berrikuntza sistematizatzeko programak	Sektore anitzetarako	A
		Zuzendaritza-taldeak trebatzeko zerbitzuak	Sektore anitzetarako	A / PR
		+ INNOVA (enpresen berrikuntza bultzatzeko laguntzak)	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		COMPITE ENPRESAK (enpresen lehiakortasuna hobetzeko programak)	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		Enpresetan elektronika eta informazioaren eta komunikazioen teknologiak	Sektore anitzetarako	A
		Innobideak-Lehiabide programa	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		Azpiegituren programa (enpresen beharretara egokitutako guneen eskaintza)	Sektore anitzetarako	GH
		EKINTZAILE (Enpresa eta Berrikuntza Zentroen bidez babestutako proiektuetarako ekintzaileentzako laguntzak)	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		AFI. Inbertsiorako Finantza-laguntzak	Sektore anitzetarako	F (FFG)
GAUZATU INDUSTRIA (Oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren ETEak sortzeko eta garatzeko laguntza-programa)	Sektore anitzetarako	F (FAI)		

<sup>1</sup> Kultura Sorkuntzarako diru-laguntza programa hau arte eszenikoaren sektorerako (antzerki-testuen sorkuntza) eta musika-sektorerako (musika-konposizioa) ere badira, hala ere, horiek ez diote erantzuten laguntza-neurrien zerrendak lortu nahi dituen logika industrialari.

Administrazioa	Erakundea / Saila	Neurria / Tresna	Sektorea/Industria	Motak
<b>PROBINTZIETAN</b>				
Gipuzkoako Foru Aldundia	Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentua	Smart Gipuzkoa programa (Gipuzkoako enpresetan ikerketa-proiektuak eta «smart» teknologien inguruko garapena sustatzeko enpresa eta I+G zentroentzako diru-laguntzak	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		Gipuzkoa IKT: Berrikuntza digitala (Informazio eta Komunikazioaren Teknologien Gipuzkoako sektorean berrikuntza-sektoreak sustatzeko diru-laguntzak)	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Gipuzkoako Sarea: Enpresen I+G unitateak (I+G unitateak laguntzeko programa)	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		Nazioarteratzeko Programa	Sektore anitzetarako	F (FFG)
	Kultura Sustatzeko Departamentua	Eduki kulturalak Interneteko teknologien bidez zabaltzeko diru-laguntzak	Sektore anitzetarako	F (FFG)
Bizkaiko Foru Aldundia	Ekonomi Sustapen Saila	LEHIATZEA: ETEei eta autonomoei bultzada berria emateko plana	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		SORTZEA: Enpresa berriak sustatzeko plana	Sektore anitzetarako	F (FFG)
	BEAZ. Enpresa eta berrikuntza-zentroa	Enpresak sortu eta sustatzeko laguntza	Sektore anitzetarako	A
		Bizkaia Sortzailea programa. Enpresa sortzaileei laguntzeko plana	Sektore anitzetarako	F (FFG)

Administrazioa	Erakundea / Saila	Neurria / Tresna	Sektorea/Industria	Motak
<b>TOKIAN TOKIKOAK</b>				
Bilboko Udala	Lan Ekintza - Bilbao	Mentoring programa	Sektore anitzetarako	A
		B Creative Bilbao	Sektore anitzetarako	A / HE
		Inteknova proiektua (mikroenpresen arteko akordioak sustatzea)	Sektore anitzetarako	A
		Enpresen Diagnostikorako programa	Sektore anitzetarako	A
Donostiako Udala	Donostia Sustapena	PI@ eraikina	Ikus-entzunezkoa	GH / A / PR
		Enpresa Planari buruzko aholkularitza	Sektore anitzetarako	A
		Enpresak sortzeko laguntzak	Sektore anitzetarako	F (FFG)
		EKIN+ programa. Ahalmen handiko proiektuak bizkortzeko programa	Sektore anitzetarako	A / PR / F (FFG)
		Talentu Berritzailea Programa. Ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako proiektuak sustatzea	Sektore anitzetarako	F (FFG)
Gasteizko Udala		Ekintzaileei Laguntzeko Plan Integral Pertsonalizatua	Sektore anitzetarako	A / PR / GH / D (FFG)

### 3.2.2. KSlel lagundu eta haiek sustatzeko egiturak

Hainbat erakundek eta administraziok gauzatzen dituzten aipatutako neurri eta tresnez gain, EAEk egitura azpimarragarri batzuk ditu; izan ere, eremu publikotik, KSlen laguntza-esparruaren zati baitira.

- **Red Innovanet:** Eusko Jaurlaritza eta SPRIren arteko hitzarmenetik sortzen da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Confebask, Eusko Ganberak eta Tokiko Garapen Agentzien Elkarte - Garapenekin batera.

Innovanetek euskal ETEen lehiakortasuna hobetu nahi du, eskura dauzkaten berrikuntza- eta lehiakortasun-tresnen lorpen eta erabilera erraztuz, Sarearen kideen arteko lankidetzaren prozesuaren garapenaren bidez, elkarrizketa koordinatu eta eraginkorragoa lortuz.
- **EIKEN. Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterra:** Izaera profesionala duen irabazi asmorik gabeko enpresen elkarte da. Euskadin diren enpresa garrantzitsuenek osatzen dute eta ikus-entzunezkoen sektorean oinarritutako eduki, produktu eta zerbitzuak sortu eta hedatzen lan egiten du.

Eiken-ek Eusko Jaurlaritzaren Ekonomi Garapen eta Lehiakortasun Sailaren laguntza du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko hamabi klusterretako bat da <sup>10</sup>.
- **SINNERGIAK:** EHUko ikertzaile talde batek sustatuta sortzen den Gizarte Berrikuntzarako Zentroa da, eskualdeko eta nazioarteko pertsonen eta erakundeen arteko sinergiak sustatzeko asmoz sortutakoa, Euskadin gizarte-berrikuntzako proiektuak eta esperientziak aurrera eramateko.

SINNERGIAK en esparruan KSlekin lotutako hainbat proiektu eta ikerketa garatzen ari dira.

### 3.2.3. Ondorioak: KSlel laguntzeko politika globalak

Berrikuntzaren arloan, Euskadik, **Euskadi+Innova** proiektuan agertzen den politika globala du. EAEn, enpresen eraldaketaren funtsezko ardatz gisa, berrikuntza sustatzeko

<sup>10</sup> EAEn dauden hamabi kluster estrategikoak honako hauek dira: **HEGAN** EAEko Aeronautikako eta Espazioko Klusterra, **ACICAE** Euskadiko Automobilgintzako Osagai eta Industrien Kluster Elkarte, **ACEDE** Euskadiko Etxetresna elektrikoaren Kluster Elkarte, **GAIA** Euskadiko Teknologia Elektronikoaren eta Informazioaren Industrien Elkarte, **Energiaren Kluster Elkarte**, **EUSKADIKO ITSAS FOROA**. Euskal Herriko Itsas Industria Sustatzeko Elkarte, **AFM** Makina-erreminta Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte, **ACLIMA** Euskadiko Ingurugiro Industrien Kluster Asoziazioa, **CLUSP AP** Paperaren Euskadiko Kluster Elkarte, **UNIPORT BILBAO**/Portuko Agintaritzaren Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Kluster Elkarte **TIL-ITS** Euskadi.

partekatutako estrategia da. Estrategia honek mundu globalizatu eta gero eta lehiakorragoan, erakundeen lehiakortasun eta biziraupenerako oinarritzat hartzen du berrikuntza. 2015erako Zientzia Teknologia eta Berrikuntza Plana, 2015 Euskadi Agenda Digitala (AD@15), [BioBasque](#) ekimena eta [Nanobasque](#) estrategia barne hartzen ditu. Hiru foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateak (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Arrasateko Unibertsitatea) estrategia honetako kide dira.

Baina KSlak ez daude estrategia global honetan, ez behintzat modu esplizituan. KSlei zeharka laguntzen zaie, berrikuntzari eta ekintzailtzari lotutako programen bidez.

Bestalde, kulturaren arlotik, EAEk ez du KSlen multzoa barnean hartzen duen kultura-estrategia sektorial edo globalik. Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak, eta zehazki, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak garatutako politikak sektore kultural klasikoentzako dira batez ere.

Azkenik, laguntzeko neurri eta tresnei dagokienez, egindako azterketak hauxe erakusten du:

- Laguntza-tresna gehienak finantzaketakoak dira eta, ia denak, itzuli- beharrik gabekoak dira (diru-laguntzak).
- Berriaz KSlentzako diren oso tresna gutxi daude.
- Laguntzarik gehienak enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta berrikuntza ezartzeko dira.
- Laguntza-programa gehienak (eta garrantzi ekonomiko gehien dutenak) administrazioen garapenerako eta ekonomia sustatzeko sailen menpe daude.

### 3.3. Gomendioak

KSlen sustapenari dagokionez EAEko egoera aztertu ostean, gomendio batzuk egin daitezke Euskadiko garapen-politikak Europako estrategiekin bat etor daitezen.

Lehenik, oinarri batzuk adierazten dira, euskal administrazioek KSlak bultzatzeko eta sustatzeko etorkizunean gauzatu beharko lituzketen proposamenak kokatzeko. Halaber, EAEn KSlei laguntzeko etorkizuneko strategiaren esparruan ezar litezkeen zenbait proposamen biltzen dira.

#### 3.3.1. Oinarriak

- **Ezagutzaren ekonomiarekin konpromisoa**  
Ezagutzaren ekonomia da egungo esparru ekonomiko, politiko eta soziala, eta beraz, EAE garapenerako eta aberastasuna sortzeko estrategiak sortzeko unean

dago, testuinguru honetan oinarrituta. Ezagutzan oinarritutako ekonomia honen eragin edo ezaugarri garrantzitsuena, aberastasun-iturri nagusi gisa, aktiboen eta elementu ukiezinak zentroan egotea da. Eduki praktiko gutxi duen diskurtsoa izan daitekeela iruditu arren, errealitate objektiboa da, maila globalean eragiketakegiten dituzten elkarte eta enpresen balioa, gero eta gehiago, hein handi batean aktibo ukiezinetan (jabetza intelektuala, giza kapitala, berrikuntza, posizionamendua, etab.) oinarritzeak erakusten duen bezala. Errealitate honek aukera handiak ditu EAE bezalako herrialde batentzako, txikia, baina ondo prestatutako biztanleria eta oso aberastasun kultural eta historiko garrantzitsuak dituena.

- **Errealismoa eta koherentzia**

KSlak bultzatzeko gauzatuko diren estrategiak EAEko errealitatearekin errealistak eta koherenteak izan behar dira. Horrek ez du esan nahi, inguru sortzaile aberats eta dinamikoa sortzeko asmo eta helburuei uko egin behar zaienik, alderdi demografikoa eta geografikoa, gure kultura eta hizkuntza edukitzearen euskal berezitasuna edo testuinguru ekonomikoa bezalako gaiak estrategiek kontuan hartu behar dituztela baizik. Gauzatu behar den edozein garapen-estrategiatan kontuan hartu beharreko osagai dira hauek, baina bereziki KSlen eremuan, eremu horretan gizartearen izaerak lotura zuzena baitauka industria mota horietan garatu eta lehiatzeko moduarekin.

- **Begirada globala**

Aurrez aipatutako oinarrien arabera, KSlak sustatzea eta bultzatzea, garapen-estrategia global baten barnean sartu behar da, hainbat arrazoiengatik. KSlei laguntzeko, lehenik eta behin, sektoreko begirada zabaldu behar da, enplegua eta aberastasuna sortzeko ahalmen handia duten sektoreak barnean hartzeko; hala nola, publizitatea edo diseinua. Halaber, sektoreko esparrutik kanpo, sormena euskal ekonomia osoan sartzeko ahalegina egin behar da, dagoeneko gauzatzen ari diren berrikuntzarako laguntza-politikei eutsiz, baina teknologiarekiko duten lotura gaindituz.

KSlen gaineko begirada administrazioen, sailen, eragile pribatuen eta enpresen arteko lankidetzaren bidez hedatu behar da. Helburu orokor komunak zehaztu behar dira eta ahalegina euskal gizarte osoarentzako ongizate handiagoa lortzera zuzendu behar da.

- **Europaren bidetik joatea**

Europako estrategia berriak ekonomiaren sormenean eta KSlen hazkundean zenbateko eragina izango duen eta industria horiek enplegua eta aberastasuna nola sortuko duten ikusteko badago ere, borondatea eta konpromiso estrategikoa begi-bistakoak dira. Europak KSlek eskualdearen garapenean duten zereginen garrantzia defendatzen du, eta EAEk ezin die bizkarra eman Europako joerei.

### 3.3.2. KSlen laguntza-estrategiarako oharra

EAEen KSlen laguntza-estrategia garatzea hausnarketa-prozesu zabal eta parte-hartzaile baten emaitza izan behar da, bai administrazioen aldetik, bai eragile ekonomiko eta kulturalen aldetik. Testuingurua, horri dagozkion Europako programen berrikuntzarekin, mota honetako strategiari ekiteko aukera gisa ulertu behar da. Hain zuzen ere, KSlak sustatzeko Europako programek jaso duten kritiketako bat –politika espezifikoetan zehaztasun falta izatea–, aukera bat da, ordea, KSlen aldeko apustu argia egiten duten herrialdeentzat: edukiz eta proiektu zehatzez betetzea EBk eskaintzen dituen esparru politiko-kontzeptualak. Ildo horretan, norbere estrategia diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren gai hauek adierazten dira:

- KSlak EAEko garapen-estrategiaren zati izan behar dira, eta beraz, eremu kulturala berrikuntzarako laguntza-sisteman egon behar da. Euskadi+Innova esparru estrategikoa KSlak berrikuntza-estrategian sartzea lortzeko ate egokia izan daiteke, eta zentzu horretan Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Saila esparru horretan sortzen diren eztabaidetan egon behar da.
- Hezkuntzaren zeregina funtsezkoa da industria- eta enpresa ekimen eta pentsamolde sortzaile eta berritzaileak sustatzeko. Hezkuntza-politikak ez lirateke garapen-estrategia globaletatik banandu behar. Kontua ez da KSleiei lotutako prestakuntza-eskaintza zabaltze hutsa, sormenak oinarritzeko gaitasuna izatera igaro behar du euskal ikasleen artean.
- Unibertsitateak, ezagutza sortzen duten eragile nagusi gisa, EAEko garapen-estrategia globalaren funtsezko oinarriak izan behar dira. Halaber, unibertsitateek etengabeko lotura izan behar dute euskal gizartearen beharrek eta erronkek. Ildo horretan, Sailean Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza egotea gehiago aprobeztatu behar da, eta laguntza eta lankidetzak gehiago lortu, KSlek laguntza-esparru zeharkakoagoa izan dezaten.
- Europa Sortzailea programak negoziatzaile txikiei kredituak emateko eta finantza-erakundeek sektore kultural eta sortzaileko enpresak ulertzeko duten modua hobetzeko finantza-bermeko tresna barne hartzen duen bezala, EAEen ere finantzaketa-modu berrien aldeko apustua egin behar da. Diru-laguntzen politika tresna publiko-pribatuekin eta itzuli-beharrik gabeko laguntzak ez diren beste mekanismo batzuekin osatu behar da, ekonomia sustatzearekin batera baliabide publikoak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko.



- Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak (Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzaren menpekoa) industria- eta sormen-sektore berrietara zabaldu behar du begirada laguntza-politikak eta azterketa gauzatzerakoan, hala KSlei balioa emateko, bai kultur ikuspegitik, bai eta gizarte ongizatearen iturri diren aldetik ere.
- EAEn KSI dinamiko eta sendoak garatzeko bidean, ezinbestekoa da oreka mantentzea kulturari eta sormenari lotutako industria sektoreei emandako laguntzaren eta kultur sektore klasiko eta ez industrialen babesaren eta sustapenaren artean; izan ere, azken sektore horiek ahulagoak dira lehiatzeko orduan, baina ezinbestekoak Euskadin sormen-ingurune sendo eta iraunkorra eraiki nahi badugu.

- CASTRO SPILA, Javier; BARRENECHEA, Julieta (2012), *Fábricas de creación: clusterización artística y cultural en Euskadi*, Moretheo Social Research and Technologies.
- EUROPAKO BATZORDEA (2010), *Libro Verde. Liberar el potencial de las industrias culturales y creativas*. Brusela: Europako Batzordea.
- COMISIÓN EUROPEA (2010), *Una política industrial integrada para la era de la globalización: poner la competitividad y la sostenibilidad en el punto de mira* (Europako Batzordeak Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari eginiko komunikazioa). Brusela: Europako Batzordea.
- COMISIÓN EUROPEA (2012) *Promoting Cultural and Creative Sectors for Growth and Jobs in the EU*. Annexes to the Communication from the Commission to the Council, the European Parliament, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. Brusela: Europako Batzordea.
- COMISIÓN EUROPEA (2013) *Opening up Education: Innovative Teaching and Learning for all Through New Technologies and Open Educational Resources*. Annexes to the Communication from the Commission to the Council, the European Parliament, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. Brusela: Europako Batzordea.
- ECHEVERRÍA EZPONDA, Javier (2012), *Euskera: Euskadi Creativa. Libro Verde sobre el sector cultural y creativo en Euskadi*, Grupo InnoLab/Sinnergia Social Innovation, UPV/EHU.
- Fundación IDEAS (2012) *Las industrias culturales y creativas. Un sector clave de la nueva economía*. Madril: IDEAS Fundazioa.
- GRITSAI, O. (2007) *Accommodating Creative Knowledge. A Literature Review from a European Perspective*. Amsterdam: Amsterdam Institute for Metropolitan and International Development Studies (AMIDSt), University of Amsterdam.

- KEA European Affairs (2009) *The Impact of Culture on Creativity*. Brusela: Europako Batzordea.
- RAUSELL KÖSTER, Pau (koord.); et al. (2012), *La cultura como factor de innovación económica y social*. Valentziako Unibertsitateko (UPV) Kultura eta Turismoaren Ekonomiako Ikerketa Unitateak egindako txostena Sostenuto proiektu europarraren esparruan.
- Smart Specialisation Platform (2012) *Guide to Research and Innovation strategies for Smart Specialisation*. Brusela: Europako Batzordea.
- TOOTH, Jenny (2010) *Mini-Study on the Access to Finance activities of the European Creative Industry Alliance*. Europako Batzordeak agindutako txostena. Brusela: Greater London Enterprise.
- Europar Batasuna (2012) *Policy Handbook on How to Strategically Use the EU Support Programmes, Including Structural Funds, to Foster the Potential of Culture for Local, Regional and National Development and the Spill-over Effects on the Wider Economy? Work Plan for Culture 2011-2014* planaren esparruan kultura- eta sormen-industrien arloko estatu-kideetako adituek osatutako lantaldearen emaitza da. Brusela: Europar Batasuna.
- United Nations Development Programme (UNDP) (2013), *Creative Economy Report 2013 Special Edition. Widening Local Development Pathways*. New York: United Nations/UNDP/UNESCO.
- ZALLO, Ramón (2011), «Cultura, industria cultural e innovación en la Comunidad Autónoma de Euskadi: una especialización pendiente», *Revista Ekonomiaz*, 78. zk., 146-185 or.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA